



BIDEZKO MERKATARITZA

ETA GENERO BERDINTASUNA



**Ekvadorren
Perun eta Mexikon
egindako
kasu-ikerketa**



Coordina:



Financia:



Medicusmundi Álava/Arabak sustatutako lana, Espainiako, Ekuadorreko, Mexikoko eta Kolonbiako ikertzaile eta profesionalek osatutako jakintza-alor anitzeko lantalde baten bidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzaketarekin.



Koordinazioa:

María Encarnación Quesada Herrera.
Granadako Unibertsitatea (Espainia)

Lantaldea:

medicusmundi Álava/Araba

Magda Jan Argüello. *Café Marabras de Motozintla, Chiapas eta Instituto de Administración Pública de Chiapas (Mexiko)*

Sagrario Angulo Garófalo. *Camari, Sistema Solidaria de Comercialización del FEPP. (Ekuador)*

Sara López Gómez. (Kolonbia)

Maketazio diseinua:

Sara López Gómez

ISBN: 978-84-09-59875-5






AURKIBIDEA


1	<u>Sarrera</u>	5
2	<u>Bidezko Merkataritza</u>	
	<u>2.1 Zergatik ekonomia sozial eta solidarioa?</u>	8
	<u>2.2 Zer da Bidezko Merkataritza?</u>	10
	<u>2.3 Nola darabil Bidezko Merkataritza?</u>	11
	<u>2.4 ¿Cómo funciona el Comercio Justo?</u>	12
	<ul style="list-style-type: none">• <i><u>Bidezko Merkataritzaren hamar printzipioak</u></i>	13
	<u>2.5 Géneroa eta Bidezko Merkataritza</u>	19
	<ul style="list-style-type: none">• <i><u>Genero berdintasunerako Bidezko Merkataritzaren esperientziak</u></i>	25
3	<u>Metodologia</u>	27
	<u>3.1 Inkestak</u>	30
	<u>3.2 Elkarrizketak</u>	33
4	<u>Analisia</u>	
	<u>4.1 Erakundeen ezaugarriak</u>	36
	<u>4.2 Emaidzak</u>	44
	<ul style="list-style-type: none">• <i><u>Bidezko Merkataritza erakundeak eta genero berdintasuna</u></i>• <i><u>Erakundeetako hobekuntzak Bidezko Merkataritzari esker</u></i>• <i><u>Bidezko Merkataritza eta komunitate-garapena</u></i>	44 52 60
5	<u>Ondorioak</u>	70
6	<u>Bibliografia</u>	73

1. Introducción

Medicusmundi Álava/Araba Bidezko Merkataritza (BM) sustatzeko eta saltzeko konpromisoa duen eta berdintasunean oinarritutako **mundu bidezkoagoaren alde** egiten duen GGKE bat da. **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako proiektuaren baitan ikerketa hau bultzatu du erakundeak.**

Bidezko Merkataritza eta Genero Berdintasuna. Ekuadorren, Perun eta Mexikon egindako kasu-ikerketaren xedea BMk egiazko berdintasunean duen ekarpena neurtzea da:

 Arlo honetako aurrerapenak indartzea ahalbidetuko duten hobekuntzak eta ekintzak definitzen laguntzeko.

 Produktuak erostea sustatzeko sentsibilizazio- eta komunikazio-ekintzak hobetzeko.

Dokumentu akademikoa izatetik haratago, erakundeei, komunitateei eta interesdun norbanakoei **BMk genero-berdintasunean dituen ekarpenen** inguruko informazio praktikoa eta erabilgarria eskaini nahi du ikerketa honek.

Zorroztasun metodologikoa datuak eskuratzeko eta ustiatzeko oinarria izan da, baina, horrez gain, **esperientzietatik, zalantzetatik, interesetatik, testuinguruetatik eta ezinegonetatik abiatutako hausnarketaren emaitza** da ikerketa.

Gizartean eraikitako eta etengabeko mugimenduan dagoen izaki sentipentzatsailez eta gorputz femeninoz osatutako gizataldea osatzen dugu egileok.

Zientzia positibistatik abiatuta eta aurrez aurreko jarrerarik hartu gabe, pertsonala eta subjektiboa ikerketarako tresna gisa txertatu dugu, epistemologia feministak adierazten duen bezala. Finean, Sandra Hardingen (1996) hitzetan, ezagutza zehaztuta dagoela hartu dugu abiapuntu gisa.

“

Nahikoa da Hirugarren Munduko zati handieneko, Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako paisaia biofisiko, ekonomiko eta kulturaleri gaineko begirada botatzea, garapena krisian dagoela ikusteko.

Indarkeria, pobrezia eta gizarte-zein ingurumen-narriadura gorakorra eraginen ebaluaziorik gabeko 50 urteko makroproiektuen ondorio dira, etengabeko zorpetzea eta biztanleriaren gehiengoaren marjinazioarekin batera.

”

Arturo Escobar. En la Invención del Tercer Mundo (1998).

2. Bidezko Merkataritza

2.1 Zergatik ekonomia **sozial eta solidarioa**?

Ekonomia sozial eta solidarioa kontzeptu holistikoa da eta mundu mailako praktika ekonomiko ugari barne hartzen ditu. Era berean, **eredu kapitalistaren ohiko logikatik** aldentzen dira. Eredu horretan, enpresa pribatuak merkatu abstraktuetan lehiatzen dira etekinak maximizatzeko helburuarekin eta sarritan natura baliabide pasiboa besterik ez da eta pertsonak eskulana baino ez.

Ekonomia sozial eta solidarioaren ezaugarri nagusia, aldiz, **hierarkiarik gabe eta adostuta erabakiak demokratikoki hartzea** da. Gainera, elkarren arteko lankidetzak sustatzen da eta **tokiko gizarte- eta ekologia-testuinguruan integratzen da**. Praktika ekonomiko inklusibo eta jasangarriagoak bilatzen ditu eta etekinak ez dira mugatzen bakoitzaren mozkinak maximizatzera. Horren ordez, **ongizate kolektiboa eta ingurune naturala errespetatzea bilatzen dira** (Johanisova eta Vinkelhoferová, 2019).

Red Internacional para la Promoción de la Economía Social y Solidariaren (RIPESS, 2023) arabera, eredia «**Amalurraren eskubidearen** kontzeptuarekin bat dator, **ongi bizitzearen** paradigmari lotuta dago, eta ikuspuntu indigenetan oinarritzen da, hau da, gizakiak Amalurrarekin armonian eta errespetuz bizitzea».



Durante los últimos 30 años ha habido una explosión de prácticas económicas solidarias en el mundo por varias razones: el deterioro de las condiciones de vida de una gran parte de la población mundial, relaciones sociales que carecen cada vez más de humanidad y una degradación ambiental profunda (RIPESS, 2023).



Ereduaren praktikak formalki edo informalki antolatu daitezke eta diru bidezko trukea barne hartu dezakete edo ez. Horrez gain, ekonomia sozial eta solidarioa **ohiko merkatutik kanpoko espazioetan** sortzen da, hala nola **nazioarteko elkartasuneko sareetan, tokiko komunitate eta testuinguruetan, herrixketan, familia luzatueta eta udalerrietan.**

Ekonomia sozial eta solidarioko ekimen batzuk ondorengoak dira:

- ✓ **Komunitateak** bultzatutako nekazaritza-proiektuak.
- ✓ **Bidezko Merkataritza** eta nekazaritza-, ehun- eta artisau-ekoizpenaren merkaturatze kolektiboa, tokiko elkarten bidez.
- ✓ **Energia berriztagarrien** kooperatibak.
- ✓ Etxebizitza eta **zaintzen kooperatiba** mota batzuk, eta baita autoeraikuntza **elkartek** ere.
- ✓ **Komunitate- edo gizarte-txanponak**, kreditu-kooperatibak, aurrezki- eta txandakako kreditu-elkartek, interesik gabeko bankuak.
- ✓ Haur-**zaintza** sareak, hondakin komunen berrerabilpen guneak, kooperatiba artistikoak (Johanisova eta Vinkelhoferová, 2019).

2.2 Zer da **Bidezko Merkataritza**?



Bidezko Merkataritza salerosketa arduratsuan eta balio partekatuan oinarritutako mugimendua eta eredu berritzailea da. Pobrezia murriztea eta garapen jasangarria ahalbidetzea du helburu, langileen, haien familien, eta komunitateen ahalduntzearen bitartez (Belon eta Chappelle, 2021).

Munduko merkataritza-harremanetan antzemandako bidegabekeriaren erantzun gisa sortu da, pobretutako herrialdeetako ekoizleek sarritan **lan-baldintza prekarioak eta ordainketa bidegabeak dituztelako**.

Elkarrizketak, gardentasunak eta errespetuak eusten diote Bidezko Merkataritzari. Hala, nazioarteko merkataritzan ekitate handiagoa bilatzen du eta **baztertutako langile eta ekoizleen eskubideak** bermatzen ditu (Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea, 2023).

Harreman horiek bereziki garrantzitsuak dira gizarte- eta ekonomia-marjinazio testuinguru konplexuetan, **hegoalde globaleko herrialdeetan** eta **ekonomiako lehen sektoreetan**, hala nola nekazaritzan, lehengaien erauzketan, arrantzan eta abeltzaintzan. Laburbilduz, gakoak ondorengoak dira:

- Erdigunean **personak eta planeta** jartzen dituen enpresa- eta ekonomia-ikuspegia.
- **Pobrezia**, **klima-krisiaren**, genero desberdintasunaren eta **gizarte-bidegabekeriaren** aurka borrokatzea.

2.3 Nola abiatu zen **Bidezko Merkataritza**?



Cronología con base en González Medina, 2023

Ten Thousand Villages hasi zen Puerto Ricoko **brodatuak** erosten eta lehenengo erakundea izan zen nazioarteko merkatuetan.



1946

Tratu desberdinak nazkatuta, **hegoalde globaleko herrialdeak** merkataritza bidezkoagoa bilatzen zuten. **Oxfam Trading** erakundea sortu zen



1964

Holandan Europako Bidezko Merkataritzako **lehenengo dena** ireki zuten. Urtebete geroago, Holandan lehenengo berme-zigilua sortu zuten: *Max Havelaar*.



1964

Berrogei erakundek **Nazioarteko Bidezko Merkataritza Federazioa** sortu zuten.



1989

Europako hamaika inportatzailek **Europako Bidezko Merkataritza Elkartea (EFTA)** sortu zuten. Fairtrade Ladelling Organizations Internacional sortu zuten eta horrek **Fairtrade** zigilua sortu zuen.



1990-1997

2004-2006



Bruselan, Bidezko Merkataritza Sustatzeko Bulegoa (**FTAO**) ireki zuten. Haien aburuz, Bidezko Merkataritza **pobreziaren aurka borrokatzeko eta Europako herrialdeetan garapen jasangarria sustatzeko tresna da.**

2009



Zenbait **nazioarteko-sare elkartu eta Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea (WFTO)** sortu zuten.

2014



Europako Parlamentuaren ebazpen bat onartu ostean, **kontratazio publikoetan** Bidezko Merkataritza kontuan hartzen da.

2016



WFTO **ziurtagiri-zigilua** aurkeztu zuten mugimenduaren parte izan nahi duten erakundeentzat.

2.4 Nola darabil **Bidezko Merkataritza?**



Bidezko Merkataritza tokiko, ekoizleen, enpresarien eta kontsumitzaileen arteko nazioko eta nazioarteko **lankidetzan harremanetan** oinarritzen da, eta baita **ziurtagiri-prozesuekin eta bitartekaritzarako eta ziurtagiriatarako instituzioekin dituzten harremanetan**.

Bidezko Merkataritzako ziurtagiria lortzeko prozesuan, produktuen ekoizpenean eta merkaturatzean berdintasuneko **baldintza etikoak bermatzen dituzten estandar espezifikoak betetzen direla baieztatzen da.**

Ez da prozesu bakarra eta estatikoa, denboran zehar estandarrekin konpromisoa luzatu behar da.

Ziurtagiri-erakundeek ikuspuntu zertxobait desberdinak izan ahal dituzte, baina helburua bakarra da: **hornidura-katean baldintza bidezkoak eta jasangarriak bermatzea.**



!Gainera, Bidezko Merkataritza hautu hori egiten duten enpresentzako onuragarria da.

Bidezko Merkataritzako praktikek **Gizarte Erantzukizun Korporatiboan (GEK)** zuzenean eta positiboki eragiten dute, eta baita **etekinean** eta **kontsumitzaileen erosketasmoetan ere** (Piedra Vindrola, 2023).

Bidezko Merkataritzaren 10 printzipioak

Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea Latinoamerikaren (WFTO-LA, 2023) arabera

1 Ekonomikoki baztertutako ekoizleentzako aukerak sortzea

Helburua ekoizle txikiak pobreziatik eta diru-sarreraren segurtasun ezetik **burujabetza** ekonomikora igarotzea da



2 Gardentasuna eta erantzukizuna

Hornidura-kateko maila desberdinetan esku hartzen duten pertsonekin **kudeaketa eta komunikazio irekia.**



Bidezko Merkataritzaren 10 Printzipioak

Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea Latinoamerikaren (WFTO-LA, 2023) arabera

3 Gardentasuna eta erantzukizuna

Lehentasuna da baztertutako ekoizle txikien gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ongizatea. Erakundeen **ez dituzte etekinak** haien kontura **maximizatzen**.

%50eko aurreordainketak egiten dira, hala eskatzen bada.



4 Bidezko prezioa ordaintzea

Bidezko **prezioak sozialki onartzekoa** (tokiko testuinguruan) dena ordaintzea da, ekoizleek beraiek bidezkotzat hartu behar dute, eta **gizonei eta emakumeei berdin ordaintzeko** printzipioa kontuan hartu behar du.



Bidezko Merkataritzaren 10 Printzipioak

Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea Latinoamerikaren (WFTO-LA, 2023) arabera

5

Haurren lanik eta bortxazko lanik eza

Haurren lanik eta bortxazko lanik ez egotea bermatu behar da.

BM erakundeek Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioarekin eta tokiko araudiekin bat egiten dute.



6

Diskriminazio ezarekin, genero ekitatearekin eta elkartzeko askatasunarekin (sindikala) konpromisoa

Kontratazioan, ordainketan, trebakuntzarako sarbidean, igieran edo erretiroan erakundeak **ez du diskriminatzen**

jatorri etnikoagatik, erlijioagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientazioagatik, afiliazio sindikalagatik, afiliazio politikoagatik, gaixotasunagatik, estatusagatik edo adinagatik.



Bidezko Merkataritzaren 10 Printzipioak

Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea Latinoamerikaren (WFTO-LA, 2023) arabera

7 Lan-baldintza onak bermatzea

Erakundeak testuinguru segurua bermatzen du, **legez ezarritako lanorduak** errespetatzen ditu, eta baita osasun eta lan segurtasun arauak ere.

Arlo honetan, nazioko eta nazioarteko arauekin bat egiten du.



8 Gaitasunen garapena erraztea

Zuzenean tokiko ekoizleekin lan egiten duten erakundeek haien **kudeaketa-ahalmenari, ekoizpen-gaitasunei, eta Bidezko Merkataritzako tokiko, eskualdeko edo nazioarteko merkatuetara iristeko** gaitasunei laguntzeko berezko ekintzak garatzen dituzte.



Bidezko Merkataritzaren 10 Printzipioak

Bidezko Merkataritzaren Munduko Erakundea Latinoamerikaren (WFTO-LA, 2023) arabera

9 Bidezko Merkataritza sustatzea


Nortasunaren, **Bidezko Merkataritzaren** ikuspuntuaren eta eskaintzen dituen produktuen inguruko informazioa ematen die **erakundeak bezeroei, baita ekoizleen erakundeen** edota prozesuan parte hartzen duten kolaboratzaileen ingurukoa ere.



10 Ingurumena errespetatzea

Bidezko Merkataritzako erakundeek **ingurumen-inpaktuak mugatzen dituzte praktika agroekologikoen bidez eta bilgarrietarako birziklatutako materialak edo material biodegradagarriak** erabiltzen. Gainera, ahal den heinean, itsasoko garraioa erabiltzen dute eta **berotegi-efektuko gas** gehiago isurtzea ekiditen dute.





“**Emakumeak hazietan adituak izan dira, hazi-ekoizleak, hazi-hautatzaileak eta munduko biodibertsitatearen kontserbatzaileak 10.000 urtez elikatzearen giza-espereintzia emakumeen espereintzia da.**”

**Vandana Shiva
Ekintzaile hindu ekofeminista**

.

2.5. Genero eta Bidezko Merkataritza



Genero kontzeptura hurbiltzea ez da huskeria. Genero-ikerketen jarrera teorikoaren arabera izango da, ezagutza-arloaren arabera edo hurbilketa egiteko praktikaren arabera.

Adierazle biologikotik abiatua, **sexu/genero** sistemak sexuari lotutako gizarte eraikuntza ezartzen dio zakila edo baginarekin jaiotzeari. Horri **generoa** deritza eta **rol eta espektatiba** batzuekin batera dator.

Hala ere, definizio irudiz simple horren aurrean, mekanismo oso konplexuak agertzen dira eta genero kontzeptura hurbiltzea zailago egiten dute.

Adibidez, Comas d'Argemir, **«errealitatearen irudia proiektatzeko pantaila»** (1995:41) bezala genero kategoria adierazteko, eta, horrenbestez, **«ezaugarri eta nolakotasun ezberdingarriak egozten eta horren arabera ekintza desberdinak esleitzen pertsonak sailkatzeko»** (1995:41) banaketa tipikoak.





Biologia ezberdintasunak, **generoa** zein **arrazari** lotutakoak, **historian zehar bazterketak justifikatzeko** erabili izan dira eta, hala, emakumea **gizonarekiko mendekotasun** egoeran mantentzeko gizarte-hierarkia balioztatzen da. (Gizarte) jokaerak natura-jatorrikotzat hartu dira eta, horrenbestez, aldaezintzat edo ukaezintzat. Adibidez: emakumeak izatez gizonak baino ahulagoak dira, beraz, horregatik ez dute parte hartzen hainbat ekintzetan.

Analisi-kategoria gisa generoaren definizioa emateko asmoarekin, Joan Scott (1990) berrartuko dugu, **«generoa sexuen arteko desberdintasunetan oinarritutako harremanak osagarri dituen elementua da eta hori botere-harreman adierazle oinarrizkoa da»** (1990:44).

Scotten ekarpen hori kontuan izanda, generoa une historiko eta kultural zehatzean gizonari eta emakumeei ezarritako gizarte-rolen eta -espektatiben multzo gisa definitu genezake, kontuan izanda bien arteko **botere-harremanek** edo **maskulinoaren eta femeninoaren** artekoek baldintzatzen dutela.




Ikerketa honi lotutako generoaren inguruko funtsezko gaia **ekoizpena** da.

Teoria feministek bortizki jarri dute zalantzan kontzeptu hori, normalean **ekoizpen-eredu kapitalistarekin** lotura izan baitu.

Testuinguru kapitalistan ekoizitako guztiak **balio sinbolikoa, soziala eta ekonomikoa** dauka; horren ordez, **hortik at ekoizitako guztiak ez dauka balio hori**. Horrenbestez, familia giroko **zaintzen ekoizpena ikusezina** da, eta ez da kasualitatea tradizioz eta oraindik gaur egun ere **emakumeek egitea lan hori**.

Dikotomia hori arlo **publikoak eta pribatuak** zehazten du. **Publikoa**, modu «**naturalean**» **gizonei** ezarri zaie, **ekonomiarekin, politikarekin, harremanekin...** lotuta dago. **Pribatua emakumeei** dagokie, eta bertan **zaintza, maitasuna, elikagai- eta jakien-horniketa...** ematen da.

Gainera, eremu horiek **hierarkia-ordena** bati lotuta daude eta **arlo pribatuak publikoarekiko** mendekotasuna du. Hala, bi estadioak bateratzen dira, maskulinoa eta femeninoa, baina bakoitzak balio desberdina du.



Hala, Michelle Rosaldoren arabera, «**asimetria unibertsala da, ekintza maskulinoak emakumeei egotzitakoak baino askoz garrantzitsuagozat hartzen direlako**» (Maquieira, 2001:147), ezagutzen ditugun gizarte guztietan gizonen eta emakumeen roletan aldakortasun handia dagoen arren.

Bi arlo horiek eta horietako bakoitzaren esleipen sexuatu gorabehera, emakumeek bietatik igaro ohi gara. Gauza da **emakumeak ordainpeko merkatuan lanean hasi direla, baina bizitza pertsonala, familia eta lana ez dira bateragarri egin**. Izan ere, oraindik gizonak orokorrean ez daude zaintza-arloan.

Ingrid Palmerrek (1991) gertaera horri **ugal-zerga deitzen dio**: lan-merkatuan lanean hasi aurretik emakumeek zerga ordaindu behar dute, etxekoa (familia), aldez aurretik esleitutako roleko funtzioak bete behar dituztelako. Horrek **lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak** eragiten ditu eta **marjinazio** handiagoko lan-egoeran egoten dira. Gainera, egoera horrek **arloan publikoko gizartean eta politikan parte hartzea zailago egiten digu**.



Hala ere, lerro horrek bi arloak errotik banatzen dituela dirudi, baina ez da hala. Horrez gain, beti ez da erabakigarria arlo publikokoa edo pribatukoa izatea.

Esaterako, **ondorioztatu al genezake arlo pribatutik haren eskubideak aldarrikatzen dituen, desiren inguruan hausnartzen duen, erabakiak hartzean negoziatzen duen edo komunitatean eragina duen emakume batek zapalkuntza txikiagoa jasaten duela bere bikotekidearekiko ekonomikoki mendekoa izan arren?**

Bestalde, emakume batek arlo publikoan onurak izateagatik, ez du zertan pribatuan mantendu. Izan ere, elementu batzuek emakumeak gizonen agindupean mantentzen dituzte, hala nola maitatua ez izatearen beldurra, familiako armonia mantentzearen ardura, maitasuna ematen duten ama onbera izatea etab.

Clara Coriak (2003) horren harira argudiatzen du arlo pribatuko negoziazioak genero rolekin bateragarriak ez direla.



Zentzu horretan aldaketa bat egotean, emakumeen eskubideak legitimatuko lirateke. Horrenbestez, lehenik, **generoa murgilduta dagoen baldintzen kontzientzia** sortuko litzateke; bigarrenik, **genero diskriminazioen kontzientzia sortuko** litzateke; eta, hirugarrenik, ezinbestean, **bizitzatik proposamen desberdintasunekin igaroko** litzateke.

Ikusiko dugun bezala, egindako elkarrizketa guztietan ageri da publiko/pribatu dikotomiaren elementu gisa. Espazio **publiko-pribatuen** banaketak gure analisia mugatu eta zatitzen du. Horregatik, **sistema bitarra berriro kontzeptualizatzen** duen berrikusketa beharrezkoa da. **Bidezko Merkataritzaren** kasuan, bi espazioetan emakumeen rola eta bien arteko diskriminazio-eta hierarkia-harremana aztertuko dituen begirada beharrezkoa da.



Genero berdintasunerako Bidezko Merkataritzaren aexperientziak



BellasMProiektua: banana ekoizpenean Kolonbiako emakumeak ahduntzen ditu

«Nire ustez, Bidezko Merkataritzat Bellasi ematen dion laguntza garrantzitsua da. Izan ere, nire iritziz, etxean bikotekideen tratu txarrak edo **apalkuntza jasaten duten beste emakumeek hortik irteteko aukera da, haiengan sinesten duen lanaren bitartez».**

Luz Marelis Quinto, Banaexport plantazioko langilea, Urabá, Antiokia, Kolonbia. .
(CLAC-FAIRTRADE, 2023)

Café Femenino: emakume nekazarien ahotsak

2003an Peruko emakume nekazariak Organic Products Trading Co-rekin batera sortutako erakundea.

Mundu osoko emakumeek aldaketa kultural positiboak nabaritu dituzte, adibidez:

- Etxean eta lurrean egindako lanaren aitortpena.
- Abusu fisikoaren, emozionalaren eta sexualaren murrizketa.
- Familia diru-sarrerak handitzea.
- Neskek eskolaratzea handitzea. (Café Femenino, 2023).
-



Cooperativa CECANOR, Perú. Café Femenino.



Genero berdintasunerako Bidezko Merkataritzaren aexperientziak



ATAISI Kooperatiba: genero ikuspuntua eta kudeaketa karguentzako emakumeen formakuntza instituzionalizatzea

«Nire bizitza bestelakoa da, **emakume gisa balioa** daukadala sentitzen dut kontuan izaten nautelako eta norbaitek kargu baten ardura eman didalako. Denboraldi batean lanean aritu nintzen eta berriz ere aukeratu naute. Nire lana gustuko izan dutela sentitzen dut eta orduan nire buruari esaten diot: badaukat balioa kide gisa, egiten dudana gustuko dut eta ondo sentitu naiz»

Ana María Gutiérrez, Cooperativa ATAISI, El Salvador. (CLAC-FAIRTRADE, 2024)

Minga Fairtrade Imports: bertako kultura babesteko eta hedatzeko tokiko emakume artisaauak

Erakunde honek Hego Amerikako ekoizle txikien bizitza ekonomikoa eta haien arteko harremanak hobetzen ditu.

«Eskerrak ematen ditut nire lanari balioa emateagatik. Erosten duzun pieza bakoitzak niretzat eta nire familiarentzat balio handia duela jakin behar duzu, diru horrekin eta zure adonearekin ametsak bete baititzaket».

Aida M., Perú.
(MingaFairtrade, 2023).



3. Metodologia



kerketa **parte-hartzailea** izan da, diseinu metodologikoan zein inplementazioan eta datuen analisisan. BMn eta generoan adituak diren Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeek osatu dute taldea. Ikerketa postkolonialen eta genero-ikerketen teoriak jarraitu ditugu, ikerketa-subjektuak eta subjektibotasuna auzitan jartzen dituzte, generoen eta harreman kolonialen arteko botere-harreman hierarkikoak kontuan izanda.



María Miesek (1986) argudiatzen du, gizonak emakumeen gorputzak kolonizatu dituzten bezala, Europa erdialdeko feminismoak beste feminismoak kolonizatu dituela. Horren harira, feminismo indigenak ekialdekoari egiten dion kritika kontuan izan dugu, nortasun indigenaren aitorpena eta **«behetik gorako» borroka** kolektiboa eskatzen dute.

Kasu honetan, informazioa zirkularra izan da, etengabeko feedbackarekin, hortaz, Iparralde-Hegoalde eta Hegoalde-Iparralde eraginaz mintzatu gaitezke.

Orobat, Iparraldeak Hegoaldearekiko duen **arrazionaltasun eurozentrista** hegemonikoaren dimentsioa apurtu dugu, eragile «hizlariak» eta eragile «mendekoak» baititu (Spivak, 2010)



Taldea Espainiako bi emakumek, Mexikoko batek, Kolonbiako batek eta Ekuadorreko beste batek osatzen dute, eta Bidezko Merkataritzan murgildutako Mexikoko, Peruko eta Ekuadorreko beste mendeko emakumeen ahotsak kontuan izan ditu. Ahots horiek ez dira erabili haien izenean hitz egiteko, beraiekin mintzatzeko baizik, hala, haien errealitateak eta BMrekin dituzten elkarguneak ezagutzeko.



Feminismo epistemologikotik eratorritako beste baldintza metodologikoa objektibotasuna eta neutraltasuna zalantzan jartzea izan da (Blazquez, 2010).

Gure subjektibotasunak ikerketaren atal gisa hartu ditugu. Horrenbestez, badakigu **gure gorputz femeninoek ere hitz egiten dutela**, gure esperientziek ekarpena egiten dute, eta ez mugatu edo baldintzatu, eta gure errealitateek **kontaeren aniztasuna eta pluraltasuna aintzat hartzen dituzte**, bai gureena zein besteena

Gauzak horrela, dokumentu honek unibertsaltasunak ezinezkoak direla onartzen du. Planteatutako ideiek testuingurua dute, eta, horregatik, proposamenak **«jardunbide egokietarako»** baldintzak hartzen bakarrik errepikatu daitezke. Era berean, ondorioak lan honen testuinguruan bakarrik interpretatu daitezke. Horrek ez ditu ondorioen aukerak mugatzen, aitzitik, modu errealistago eta eraginkorragoan erabiltzea ahalbidetzen dute, ez denboraldiko errentagarritasun ekonomikoaren logikatik abiatuta, baizik eta gizarte-eraginkortasunetik.

Ikerketan metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili dira. Gizarte zientziek onartzen dute bi metodologia horiek ikerketetan uztartzea. Lehenengoak ez ditu soilik errealitateko datuak ematen, baita metodologia kualitatiboko datuak indartzeko **elkarrizketa** ere.

Ikerketa berrikuspen bibliografikoaren bidez egin da, antzeko proiektuen emaitzak eta BMren egoera **Ekuadorren, Perun** eta **Mexikon** ezagutzeko, eta lortutako datuen gorputz teorikoa osatzeko.

Gero, BM erakunde ekoizleen baitan **generoen arteko desberdintasun-arrakala murrizteko Bidezko Merkataritzako** ziurtagiriak duen eragina ezagutzeko **online inkesta** egin da.



Hirugarrenik, BM inguruko emakume ekoizleei eta bestelako rola dituzten emakumei **elkarrizketa erdi egituratuak** egin zaizkie, tokian eta ahots nagusien bidez inguruko **genero-diskriminazio** egoerak eta generoen arteko berdintasuna lortzeko **BMren ekarpenak** ezagutzeko.

3.1 Inkestak

Modu kolaboratzailean egin zen online inkesta: «Genero berdintasuna eta Bidezko Merkataritzarekin elkargunea». Horretarako, LimeSurvey softwarea erabili zen.

BM erakunde ekoizleen eta komunitateen baitan generoen arteko desberdintasun-arrakala murrizteko Bidezko Merkataritzako ziurtagiriak duen eragina ezagutzea zen galdetegiaren helburua.

Horrenbestez, Ekuadorreko, Peruko eta Mexikoko Bidezko Merkataritzako Erakundeei zuzenduta egon da; talde horretan ziurtagiria duten ekoizpen-kooperatibak, erakunde bitartekariak eta hegemoniaren kontrako aukera gisa BMren kontzientzia-mugimendua sortzeko misioa duten entitateak daude.

Inkesta anonimoa denez, ezin dugu jakin erantzun zuten erakundeen izena, baina bai haien ezaugarriak. Izan ere, galdetegiaren lehenengo blokea identifikaziorako zen eta ekoizpen-sektorearen, kide-kopuruaren, kokapenaren eta abarren inguruko informazioa eman digu.

Herralde horietako Bidezko Merkataritzako sare handiei eta elkarteei eta jadanik harremanetan zeuden erakundeei bidali zitzaien dokumentua.

Horrez gain, beste batzuekin telefonoz harremanetan jarri ginen hedapenerako laguntza eskatzeko.



Guztira **44 erantzun** bildu dira; eta horietatik 14 ez daude osorik.

Erantzun-maila **%70** ingurukoa da. Gure aburuz, ehunekoa ez da handiagoa ondorengo arrazoiak direla eta:

- Lagin handia edukitzea ekiditen duen arraka digitala.
- Gune geografiko jakin batzuetan teknologia berriak eskura edukitzea zaila izatea.
- Inkesta erantzuten dutenen aldetik informazio gabezia.
- Dokumentuak hiru atal ditu. Adierazi bezala, lehenengoak **identifikaziorako datuak** biltzen ditu, beste batek **BMren ingurukoak**, eta, azkenak, **generoari buruzko** gai konplexuagoen ingurukoak. Inkesta batzuk hutsik daude blokeek aurrera egin ahala. Ondorioztatu dezakegu inkesta egiten hasi diren pertsonak ez daudela zuzendaritza-organoengatik hurbil, informazio gabezia dutela eta erantzuteari uzten diotela.
- Azken puntu horren ondorioz, ikusi dezakegu:

- Baliteke, **informazioaren erabilerari** dagokionez, kooperatibako **prozesu demokratikoek ez betetzea** opa izandako estandarrak.
- Kooperatibistak haien **produktuak saltzeko** daude erakundean, baina baliteke helburua ez izatea kooperatibako kide izatea, ezta aktiboki parte hartzea. Ondorioz, antolakuntzak **bertikaltasuna** sortzen da, BMren eta genero berdintasunaren printzipioen aurkako elementua.



- Tresna **kontzientzia feminista** duten emakumeek sortu dute, hortaz, isuria dauka. Kontzientzia feministaren proiektioa emakumeen baldintzak hobetzetik haratago doa. Pentsamendu-ereduan eta ekintza patriarkalean eragina izango duen gizarte-iraultza bilatzen du. Hala ere, inkesta ez da bereziki bideratu kontzientzia hori duen pertsonengana. Baliteke galdetzen dena eta erantzuten dutenen beharrak zein pertzepzioak urrundu izana.
- Lantaldearen arabera, tresna hori aurrerakuntza handiak neurtzeko baliagarria da. Baina zalantzan jartzen du generoen arteko berdintasunerako bidea izan daitezkeen **pauso txikiak** edo eraldaketa sotilak **ikusaraztea** ahalbidetzen duenik, eta baita inkesta erantzuten dutenak ere horietaz ohartzea ere.



Dena dela, gure aburuz, lortutako informazioa oso baliagarria da. Datuak lortzeko tresna guztiek dituzte indarguneak eta mugak. Kasu honetan, informazioa azkar eta bisualki lortzea ahalbidetu digu.



3.2 Elkarrizketak

Lantaldeak gidoia egin zuen eta **zazpi elkarrizketa erdi egituratuak** egin zituen, erakundeen baitakoa hurbilagotik ezagutzeko eta, inkesten datuetatik abiatuta, eztabaidatzeko. Inkestak bezala, elkarrizketek ere hiru bloke dauzkate: **identifikazio datuak, BMren inguruko ezagutza eta genero-gaiak**. Dena den, oraingo honetan norbanakoarekin zerikusi handiagoa zuten **galdera subjektiboagoak txertatu** ziren.



Elkarrizketak aurrez aurre edo online egin ziren eta gero transkribatu ziren. Elkarrizketetako zein erakundeetako datuak anonimotasuna errespetatzeko helburuarekin eraldatu egin ziren.

Herrialdeka, **bi elkarrizketa Mexikon** egin ziren, **lau Ekuadorren** eta **bat Perun**, erakunde txikiei, lau kooperatiba eta lau erakunde zibilei. Emakume bakoitzak erakundean duen rola eta haren esperientzia desberdina da: erakundeko langileak, kooperatibistak, kideak edo erakunde txikietako zuzendariak. **Ekoizpen-sektoreak ere anitzak dira** (artisautza, kafea eta garagarra, besteak beste).

Guztiek dituzte 30 eta 45 urte artean, batek izan ezik, eta batez besteko bi seme-alaba dituzte. Erdiak unibertsitateko formakuntza du. Genero-nortasunaz gain, analisi honetan funtsezkoak diren beste bi elementu daude: **emakume indigenak** dira eta **landa eremukoak**.



Landa eremuetan errotuagoa dago espektatiba- eta rol-sexisten iritzi sistema. Baina, bestalde, emakumeek erresistentzia trinkoak ezarri dituzte espazio horietan. Feminismo indigena horren adibidea da.

Adierazi bezala, emakumezko ikertzaile feminista postkolonialen ikerketek adierazten dute agenda feministetan ez dagoela islatuta emakume indigenen egoera zehatza ezta gizonezko indigenen eta kolonizatzaileen zapalkuntza, baita «ekialdeko feminismoko» diskurtsoak eta diskurtso kapitalistak ere (Hernández, 2008).



Horren aurrean, **feminismo indigenak** emakume indigenek jasaten duten askotariko zapalkuntza adierazten du eta eztabaida teorikoaren erdigunean **kolonialismoa** jartzen du.



1. Taula Elkarrizketatutako emakumeen inzialak, erakundeak eta jatorriak

Izena	Erakundea	Lekua
M.P	THP	Zinacantan. México
S. R	EC	Jaltenango, México
DB	PP	Comunidad de Ugsha, Ecuador
T	PP	Comunidad de Ugsha, Ecuador
A	PP	Comunidad de Ugsha, Ecuador
S	PP	Comunidad de Ugsha, Ecuador
B	AA	Puno, Perú

Iturria: Geuk egina

Aipatutako herrialde bakoitzean lantaldeak egindako esfortzua latza eta gogorra izan da, erakundeen edo bereziki ekoizleen antolaketa eta haien arteko distantziak beti ez zetozelako bat ikertzaileen aukerekin.

Era berean, aipatu beharra dago herrialde horiek, bereziki Mexiko, jasaten ari diren **indarkeria-bolada** komunitateetara heltzen dela eta horrek **zailagoa egin zuen ikerketa**, ekoizpen-guneetara sarbidea mugatua edo ezinezkoa zelako. Horrek argi uzten du BMk **erronka berriei** aurre egin behar diela, hala nola **indarkeriari, klima krisiari eta migrazioari**.



4. Analisia

4.1 Erakundeen ezaugarriak



Ikerketan metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa erabiltzeak lortutako datuak uztartzea, inkestan edo elkarrizketen ondorioak indartzea eta elkarrizketatuei ahotsa ematea, «zenbaki» bat baino gehiago izan daitezten, ahalbidetzen du.

Ikerketan parte hartu duten erakundeen jatorriari dagokionez, jada adierazi dugu inkestek informazioa ematen dutela BMren egoeraren inguruan hiru herrialdetan: **Mexiko, Ekuador eta Peru**. Gehienak lehenengokoak dira, %62.



Horren arrazoa ikertzaileek alde zurretik erakunde-sare batekin harremanak edukitzea izan daiteke. Beste arrazoi bat herrialdean gizarte-erakunde gehiago egotea izan daiteke, bereziki kooperatibak, Oaxaca eta Chiapaseko estatuetan BM eta ekoizpen-organikoan aitzindariak izan ziren.

Erantzun dutenen generoari dagokionez, 41 emakumeak ziren eta hiru gizonak. Erakundeen jarduera-motari dagokionez, %70 nekazaritza-sektoreko ekoizpen-lerroetakoa da eta %30 artisautzakoa, ondorengo taulan agertzen den bezala.



2. Taula

Ekoizpen-sektorea

ID	Respuesta
2	artesanía
5	EXPORTACION DE ARTESANIA PERUANA
6	Agrícola
8	Agrícola
9	Café
10	Agricultura (café)
12	Industria rural
13	Comunidad Ugsha, Asociación Agrícola Plaza Pallarés
14	Agrícola y Procesadora
15	Alimentos
16	Agrícola
17	Agrícola
19	Café
20	Producción Agrícola
21	Producción Agrícola
22	Cooperativa de Producción Artesanal
23	Alimentos
24	Asociación de producción artesanal
25	Café
26	Producción y comercialización de azúcar orgánica de Comercio Justo
29	Productos agrícolas y artesanales de pequeños productores organizados
30	Café
31	Café y tostado de café
34	Forestal
35	Café
36	Forestal
37	Café
39	Café
40	Artesanías
41	Salud
42	Artesanías
44	Artesanía textil

Iturria: Geuk egina.

Garrantzitsua da kontuan izatea zein eskualdetan eskuratu zen inkestetako eta elkarrizketetako informazioa. Lortutako datuen arabera, ondorioztatu dezakegu BMko ziurtagiria lortzeko interesa duten entitateak ekoizle txikiak edo organikoak direla, **landa eremuko gizarte-enpresak**, eskaintzen duten zerbitzuaren edo produktuaren balio-katean gorago heldu nahi dira, **nazioko eta nazioarteko merkatuetara** iristeko helburuarekin.

Lortutako beste identifikazio-datu bat erantzun dutenak bakarrik emakumeak dituen erakunde bateko kideak edo erakunde mistokoak diren da.

Azken kasu horretan, elkarrizketatutako erakundeek gizon gehiago zituzten, batek izan ezik (B gisa identifikatukoa), hamabost pertsona ditu eta soilik hiru dira gizonak. Ikusiko dugun bezala, analisisan ikusi daiteke gutxiengoa izateak ez duela erakundeko kontrol-rolean aldaketa suposatzen:

“ Hemen hiru gizonak egiten dute lan, haien artean nire aitak. Nabaritzen da beraiek gehiago ekoizten dutela ardura handiagoa hartzen dutelako. Emakumeok, aldiz, erratza pasatu, haurrak zaindu etab. nahi dugu. ”


Erakundeen profilari dagokionez, gehienak kooperatibak direla ikusi dugu. Aipatu dugun bezala, txikienak irensten dituen kapitalismoaren oldarrari erantzuteko sortu da BM. Erantzuna erakundeen erresistentzia eta elkartasuna da. Indarrak biltzen dituzte konpetentziari aurre egiteko eta **«zigilu» bereizgarriak** sortzeko pobretutako herrialdeetako ekoizleentzat.

Orduan Sozietate Zibileko Erakundeak (GKE) ugaritu dira, emakumeen talde solidarioak eta gero eta kooperatiba gehiago. **Ekonomia sozial eta solidarioaren** kontzeptupean, ez daude errentagarritasunera bideratuta, baizik eta kideen eta komunitatearen garapenera.



1. Grafikoa

Erakundeen legezko osaketa



Fuente: Elaboración propia conforme a la encuesta.

2. Grafikoa

Noiz sortu zen erakundea?



Fuente: Elaboración propia conforme a la encuesta.

Esta situación se evidencia en este estudio donde un 47.1% de las entidades participantes son Cooperativas, seguidas de Empresas (26,5%), Otro (14,7%) y ONGs (11,8%). (Gráfica No. 1).

Los resultados de la investigación indican que un (18,22%) de las organizaciones participantes tienen una antigüedad de más de 27 años y están ya consolidadas. En el extremo contrario, el 59,4% de los casos, la conformación de las cooperativas u organizaciones no rebasa los 12 años de antigüedad. (Gráfica No. 2).

Ello implica debilidad estructural y dificultades para garantizar su sustentabilidad y sostenibilidad ante las amenazas constantes a las que se enfrentan.

Orokorrean enpresa txikiek eta erakundeen sorrera koiunturala dute eta **oraindik ere oso ahulak dira** merkatuaren oldarraren aurrean. Izan ere, merkatuak ekoizleak erakartzen ditu ordainsari eta diru-sarrera handiagoak hitzematen dizkietelako.

Batzuetan, elkartasuna eta kooperatibismoaren benetako sentimendua alde batera uzten dira, eta ikusi egiten da ekimena mantentzeko interesa diru-sarrera gehiago izateko legezko eskubidera lotuta dagoela. Horrekin batera, erakundeetan presioak eta barne-mailako lehiak aitortzen dira, baita bakarrik emakumeek osatzen dituztenetan ere.

Aldi berean, dena den, elkarrizketetatik ondorioztatu daiteke erakundeetan kohesio elementu garrantzitsuak daudela, hala nola kideen arteko **familia-loturak**; antolaketa- eta zuzendaritza-lanak partekatzea; **komunitate berdinetan** edo oso hurbil bizitzea; eta saltoki berriak garatzea, adibidez, dendak eta kafetegiak, salerosketarako, trebakuntzarako eta inkluso erlijiorako guneak direnak. Elementu horiek guztiek **kultura- eta nortasun-batasuna** osatzen dute eta erakundeetan txertatzen da.

Emakumeek bakarrik osatzen dituzten entitateen kasuan genero-nortasunak indarra hartzen du. Izan ere, lehen aipatutakoaz gain, bizikidetzak, gatazkak konpontzeko, ahizpatasunerako eta konfiantza espazioak sortzen dira. Hala, seguru sentitzen dira gune amankomunetan, askotan oinarrizko zerbitzuak ez dituen ingurunean, esaterako, eskolak, haurtzaindegiak, haurrentzako tokiak, elikagai-hornidura guneak eta osasun-zentroak.

“ SR:Puerto Ricoko Kolonian, guztiak gara hangoak, beraz, familia eta ezagunak gara. ”

“ B: Nire aita eta ama fundatzaileak dira nirekin batera. ”



Erakundeen **zuzendaritzaren osaketari** dagokionez, %35,14 osatzen dute **4 eta 6 emakume** artean, %10, aldiz, **4-6 gizonek**. Datu horiek irakurtzeko, kontuan izan behar da entitate gehienek bakarrik emakumeek osatzen dituztela.

Erakundearen baitan **emakumeen saila** galdetzean, %35,14k **baiez esan** du eta %10,81ek baieztatu du egon zela. Galdera horrekin, bere burua antolatzeko ahalmena ezagutu nahi genuen. Emakumeen saila izateak autokudeaketarako eta erabakiak hartzean inpaktua izateko ahalmena suposatzen du.

Horretarako, sentsibilizatutako langileak egon behar dira eta **Genero Unitateak** sortzeko adituak eduki behar dira, diskriminazio eta indarkeria matxista egoeretan esku hartzeko eta berdintasuna sustatzeko.

Hala ere, badirudi galdera ez zela ondo planteatu. Izan ere, erantzun kualitatiboetan aurkitu dugu errealitatean emakumeak dauden erakundeko espazioak adierazten dituztela.

Inkestarako interesgarria zen jakitea erakundeek duten ziurtagiria, zigilua edo aitortpena. Erakundea zein emakumeak hazteko eta egonkortzeko garrantzitsua da zigilua mantentzea haien balioa aitortzen duelako. Baina **%7,69k bakarrik darama hamabost urte baino gehiago ziurtagiriarekin, eta %46,15ek hiru baino ez**. Beraz, ondorioztatu dezakegu **BMko praktikak oraindik ere egonkortze prozesuan daudela**.



Ziurtagiriak ez dira mugagabeak eta etengabe ebaluazioak egiten dira. Horrenbestez, erakundeak ere modu jarraituan bete behar ditu ezarritako baldintzak. Ondorioz, ziurtagiriak lortzeko alde **aurreko antolaketa esfortzu ekonomikoa** beharrezkoa da, eta egoera ekonomiko pobretuan daudenek eta **ahalmen mugatuak** dituztenek zailtasun handiagoak dituzte.

Entitateen %35ek, gainera, **ekoizpen organikoko ziurtagiria** dute; horren ondotik dituzte **Ekoizle Txikien Zigilua**, Rainforest, CANANI, RRFN, Biodibertsitate Zapora eta Jakintzak, Talde Zaurgarrientzako Enpresa-Kudeaketa eta Jatorri-Deitura. 6k bakarrik ez dute bestelako ziurtagiririk. Horrek adierazten du ziurtagiriekiko gero eta interes handiagoa egon dela, batez ere 1990eko hamarkadatik, pobretutako sektoreen ahalduzko ekonomia dela eta.

Erakundeen antolaketa- eta kooperazio-ahalmenari dagokionez, agerikoa da haien **ahultasuna**, hein batean, lehen ezan bezala, hamabost urte baino gutxiagoko antzintasuna dutelako. Bestalde, %40k bakarrik erantzun zuten federazio edo erakunde handiago baten kide direla.



Zehazki, Bidezko Merkataritzako emakumeen sareetan parte hartzen dutela nabarmentzekoa da, hala nola WorldFairTrade, Kontsumo Arduratsua, Bidezko Merkataritzako Koordinakundea EZ, Latinoamerikako Emakume Enpresarien Sarea, Latinoamerikako eta Karibeko Azukre Sarea, ganberak, adibidez, Egur Ganbera Nazionala.

Ikusi dugu **ezegonkortasun politikoko**, sozialeko eta ekonomikoko testuinguruetan, hala nola ikerketa egin den herrialdeetakoak, batez ere emakumeek bakarrik osatzen dituzten erakundeen barne-mailako ahultasunak batzuk desagertzea eragiten duela eta kideak egoera zaugarrian geratzen dira, **diru-sarrerak galtzen dituztelako eta parte-hartzeko biderik ez dutelako**.



4. Analisia

4.2 Emaitzak



¿Erakundeak berdintasunerantz aurrera egiteko helburuarekin sartzan dira BMn?

Inkesten helburua da jakitea generoen arteko berdintasun handiagoa bilatzea zein punturaino izan zen erabakigarria erakundeek BMren zirkuituan parte hartzea erabakitzeko.

Gehienek, %73,08k, adierazi zuten funtsezko arrazoa **merkatu berriak** bilatzea izan zela, eta, horren ostean, **bizi-baldintzen egoera hobetzea**, %65,38.

Azken hori interesgarria da, izan ere, argi geratzen da ez dela bakarrik eragin ekonomikoaren beharra ikusten. Gauza bera esan daiteke inkesten %53,85ek adierazi dutelako **komunitate-garapeneko beharra**, eta inguruarekiko kezka eta **mehatxu etengabeekin** zuzenean lotuta dago hori (%30,77k adierazi du).

Un %50ek erantzun du **BM aukeratzeak emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzea** duela helburu. Erantzun horrek lanaren helburura hurbiltzen gaitu, izan ere, **emakumeak ahalduntzeko eta eremu publikoan parte hartzeko** beharra adierazten du.

Egoera horietan, **autonomiarako** eta emakumeen **parte-hartze publikorako** espazioak edukitzeko aukera gisa ikusten duten BM.



Elkarrizketetan, lau parte-hartzailek, DBk, Bk, Tk eta Ak, arrazoi bakarra adierazi dute: **«beharra», ekonomia gabeziari** erreferentzia egiten dio horrek. Izan ere, erakundeek, eta bereziki emakumeek osatzen dituztenek, onartzen duten ekoizpen-arloko zenbait mehatxuri aurre egin behar diotela, izan kudeaketa-gaitasun gabeziagatik, finantza-baliabide faltagatik, edo ekoizpenerako ezinbestekoak diren merkatuetara eta lehengaietara heltzeko zailtasunagatik.

Artisautza-ekimenen kasuan, ekoizpen masiboko salgai merke antzekoen konpetentziari aurre egin behar diote maila lokalean, normalean Txinatik etortzen dira, edo marka handiek diseinuak plagiatzen dizkiete inolako isunik gabe.

Horri guztiari, partekatzen ez diren familia-lanak gehitu behar zaizkio, **zaintza-gainkarga**, eta askotariko diskriminazioak eta indarkeria matxistak.

Dena den, BMk ahalduntzeko ematen dituen aukerak ere aipatu ditu Rsek, BMko kooperatibak lan-aukera eman ziolako eta emakumeekin lan egiten hasteko kontratua egin ziolako. Orain kooperatibako kide da bera. Testigantza horrek jada ziurtagiria duten erakundeen %50rri egiten dio erreferentzia, horiek BM berdintasuna sustatzeko aukera gisa ikusten dute.

“ RS: Nik ikusi behar izan dun komunitateetan egoera zaila dela haientzat, eta BMk eman zigun bultzadarekin gutxinaka toki hori lortu dugu, sarrera izatea, aukera hori eduki ahal izatea. Izan ere, ni kooperatibetan BMgatik sartu nintzen, emakume taldeekin lan egiteko emakume bat kontratatu nahi zuten, eta formakuntzarako aprobetxatu nuen aukera izan zen, taldeak ezagutu eta formakuntza emateko.



3. Taula

Razones que llevaron a la organización a solicitar la certificación de CJ

Opción	Cuenta	Porcentaje
Crisis económica del entorno (SQ001)	8	30.77%
No teníamos acceso a los mercados tradicionales (SQ002)	7	26.92%
Búsqueda de nuevos mercados (SQ003)	19	73.08%
La posibilidad de acceder a financiación (SQ004)	5	19.23%
Las garantías que aporta el CJ (SQ005)	7	26.92%
El desarrollo comunitario (SQ006)	14	53.85%
Mejoramiento de las condiciones de vida (SQ007)	17	65.38%
Promover el empoderamiento y participación de las mujeres (SQ008)	13	50.00%
Otro	1	3.85%

ID	Respuesta
23	certeza de la calidad del producto que consumen

Fuente: Elaboración propia.

BMko erakundeetan nola interpretatzen dute generoaren eta desberdintasunaren kontzeptua?

SEmakumeen eta gizonen arteko desberdintasuntzat erakundeak zer ulertzen duen galdetuta, erantzun gehienetan aipatzen dute emakumeek tratatu desberdina jasotzen dutela, baldintza desberdinak dituztela, eta eskubide eta aukera berdinez ez dutela gozaten, soilik emakumeak izateagatik.

“Ez dituztela eskubide eta aukera berdinak”

“Desberdintasuna soilik generoagatik besteari abantailak ematea da”

“Lanaileei sexuaatik pribilegio gehiago ematea»

Beraz, ondorioztatu dezakegu sarritan inkestetan generoaren kontzeptua gizonak eta emakumeak identifikatzeko soilik erabiltzen dela, **botere-harreman hierarkikoak** kontuan izan gabe:

“Guztiak berdin lan egiten dute».

“Guztiok berdinak gara”

“Orokorra da, baina arlo guztietan gizonak eta emakumeak parte hartu dezakete».

Era berean, berdintzasunetik abiatuta hitz egiten dute berdintasunaren kontzeptuaren inguruan, ekitatea kontuan izan gabe.

Horren harira, gogoratu beharra dago berdintasunaren kontzeptua ilustraziotik datorrela eta pertsona guztiak berdin tratatzeko espazio politiko berria sortzeko asmoarekin agertzen dela, helburua Antzinako Erregimenaren pribilegioekin amaitzea da, baina desabantaila egoeran dauden pertsonak edo kolektiboak berdin tratatzeak diskriminazioak sortzen dituela kontuan izan gabe (Quesada, 2012).

Horren aurrean, gaiarekin hobeto bat egiten duen berdintasunaren definizioa proposatzen dugu: **«emakumeen eta gizonen artean lanak eta diru-sarrerak ekitatiboki banatzea, eta, hala, giza bizitzaren arduraren eta zaintzan, eta lan ordainduan parte hartzean berdintasuna egotea»** (Carrasco, 2003:111).

Berdintasunaren zein generoaren definizioak gizonen eta emakumeen arteko **harreman hierarkikoaren mendeak** dira.

Horrenbestez, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko antolaketa berria eta lanak desberdin banatzea, ez emakumeak gizonen berdinak diren ideia faltsua. Hala ere, bi erantzun bakarrik daude erakundearen ikuspuntutik.



“Gure erakundearentzat, honakoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna: aukera gutxiago egotea emakumearentzat; gehienbat gizonek edukitzea zuzendaritza- eta kudeaketa-karguak eta lansari handiagoak”.

“Erakundea bizipenen arabera sortu zen, ez ziren kontuan izan emakumeen ahalmenak, emakumeak liderrak izan eta ekintzaitetzan aritu gaitezkeela”.



Hausnarketa horiek bi jarrera desberdin baina oso interesgarriak aurkezten dizkigute. Lehenengoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren berriazko berrikuspena dago, eta, bigarrean, zehazki aipatzen da erakundea sortzean **desberdintasuna** ez zela kontuan izan.




Biek adierazten digute erakundeen baitan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren kontzeptuaren inguruko hausnarketa **beharrezkoa dela berezko definiziora hurbiltzeko**.

Kontua ez da emakumeak zerrenda edo zuzendaritza-batzordearen parte izatea, baizik eta benetan **haien behar espezifikoak errepresentatzea** eta haien errealitateak balioan jartzea eta kontuan izatea, erakundearen zein komunitatearen baitan.

Horren harira, lidergo horizontala azaltzen duten garrantzi handiko erantzun kualitatiboak daude: «Hogei emakumek osatzen dugu, guk hartzen ditugu erabakiak»; eta benetako genero-arkitektura: «2017tik genero-batzordea daukagu eta, 2023tik, erakundean genero-koordinatzailea dago».





SR: : «Nik 2007tik daramat lanean, beti kafearekin, baina etxeko hegaztiekin ere lan egin dut, eta baita osasun-programa batzuekin ere; horrek balio izan digu emakume taldeak formalizatzeko eta erakunderen batean integratu ahal izateko, talderen batean sartzeko. 2007tik, erakundeetan emakumeen kontua nola garatu den ikusi behar izan dut, batez ere kafean, hemen indar handiena daukalako, eta beraiek nola integratu eta zertu diren ikusi dut, egia da, BMren bidez izan da. Ezagutzen ditudan kafe kooperatiba guzti-guztiak hasi dira lanean, hasiera batean, BM arau batekin, erakundeetan BMri tokia eman ez edo proiekturen batekin. Zaila izan da hasiera batean ez zeudelako ohituta taldean lan egitera, edo trebakuntzetara joatera, haien tokitik ateratzera, konfort-zonatik. Hasieran, zaila izan zen batera lan egitea, modu antolatuan, gero, beharrezkoa zen senarrek emazteei aukera ematea, trebakuntzarako aukera, proiektuak bisitatzeko, arrakasta esperientziak edo beste komunitateetan bisitatu genitzakeen beste erakundeak. Normalean, kooperatibetako zuzendaritza mahaietan benetan oso zaila izan da emakume batek kargu bat izatea, eta, horregatik ere, egoitza aldatu behar dute, zuzendaritza-kargu batek karguak dirauen bitartean egoitza aldatu behar duelako eta oso zaila da familiaren laguntzarik izan ezean edo, batez ere, familia edo seme-alabarik ez badu».

Tabla No. 4

¿Hay alguna sección de mujeres dentro de la organización?

SI, ¿De qué tipo?		
Si, ¿De qué tipo?	13	35.14%
No	17	45.95%
La hubo anteriormente, ¿De qué tipo?	4	10.81%

ID	Respuesta
5	ADMINISTRATIVA Y ALMACEN
9	De genero y administrativa
12	Directora
15	Todas las actividades son realizadas por mujeres
19	Comercialización
20	Tercera edad y con discapacidad
23	Toda la organización
25	Estamos constituidas por 20 mujeres, somos quienes tomamos decisiones
26	Desde el 2017 contamos con un Comité de Genero y desde el 2023 una Coordinadora de Genero en la organización
31	Representación en la mesa directiva
34	La dirección general
39	Toda la conforman por mujeres
44	Artesanía textil
13	Todos trabajan por igual
14	No existe
16	Ninguna
21	Ninguna
22	Ninguna
24	todos somos iguales
36	Es generalizada pero pueden participar en todas las areas hombres o mujeres
37	No
10	Delgada
12	No
17	Proyectos

Fuente: Elaboración propia de acuerdo a las entrevistas.

Erakundeetako kideek BMko berdintasun irizpidea ezagutzen dute?

Jada azaldu bezala, BMko zigilua lortzeko prozesua luzea da, trebakuntza- eta egiaztapena-faseak ditu, eta zigilua lortzeko baldintzak ezartzen dira. Inkestan parte hartu dutenek BMko baldintzak eta irizpideak ezagutzen dituzte. Genero berdintasunari dagokion baldintza gehien aipatzen denen artean dago: **ingurumena zaintzea** (%80,77), **generoen arteko berdintasuna** (%76,92), **erakundeetako langileen lan baldintza** hobeak (%73,08), **haurren esplotaziorik** ez egotea (%61,54), eta **erakundearen demokratizazioa** (%38,46).

Adierazle horiek lortzeko ezinbestekotzat dituzten tresnak hauek dira: **aholkularitza teknikoa** (%69,23) eta **hobekuntza planak** (%42,31).

BMk emakumeen ekoizpen-ahalmena indartzen du? ?

Inkesten %76,92k aipatzen dute **dibertsifikazioa dela haien erakundeentzako erronka** nagusia, izan ere, monolaborantzak eta berrikuntza gabeziak, artisautzen kasuan, merkatuetara heltzea zailagoa egiten dute, beraz, **beste aukerak** bilatzea beharrezkoa da.

%57,69k uste dute **BM zigiluak erakundeak indartzen** dituela dibertsifikazioan aurre egiteko eta tokiko salmenta gehiago izateko. Gainera, horrek aldi berean emakumeentzako ahalduntza espazioak sortzea errazten duela adierazten dute, eta haien ekoizpen-ahalmena handitzen dute.

Era berean, aitortzen dute dibertsifikazioa eta **berrikuntza** batera eman beharko liratekeela. MPk deskribatzen digu lan egiten duen taldeen kasua:



«Ni nagoen tokian bakarrik brodatzen dute, zonaldean brodatu desberdinak egiten dituzte. Ch.-n giltzak edo antzeko irudiak egiten dituzte, ehunak lantzen dituzte, batzuk tindagai naturalekin, eta ehunak margotzen dituzte. Ez dakite ehuntzen, baina tindatzeko lana gustatu zitzaien eta tindatutako ehunak edo hariak saltzea erabaki zuten, haiek ez dakitelako josten».

Tindagai ekologikoak erabiltzeak taldeari ahalbidetu dio ehuntzen duten kideei kolore-sorta handia eskaintzea.

Kasu honetan, berrikuntza ehundu aurretiko ekoizpen-katearen parte izatean datza, lehiakortasun txikiagoa dago eta produktu desberdina eskaintzen dute.

Berrikuntzak emakumeen egoera-ekonomikoaren hobekuntza suposatu du. MPk honela azaltzen du:

(Hobekuntza ekonomikoak) ez daude talde guztietan, baina bai batzuetan. Artisautza-taldeetan ekonomia berarekin jarraitzen dute, baina tindagaiak erabiltzen dituzten taldeetan, aldiz, aldaketa egon da. Prezioa igotzen dela ikusi dute eta, orduan, orain haien lanak balio handiagoa daukala ere ikusi dute...»

5.Taula

Indarra hartzeko erakundeak aztertzen dituen neurriak

Opción	Cuenta	Porcentaje
Diversificación de la organización en cuanto a la producción (SQ001)	20	76.92%
Fortalecer las ventas locales (SQ002)	11	42.31%
Buscar otros intermediarios (SQ003)	2	7.69%
Otro	4	15.38%

ID	Respuesta
2	Buscar otros mercados
9	Calidad en producto
15	cuidado del medio ambiente, beneficiar al sistema agroforestal y la cadena de valor.
23	buscar nuevos clientes

Iturria: Geuk egina

BMri esker, zer nolako hobekuntzak izan ditu erakundeak berdintasun-arloa kontuan izanda?


BMren mugimenduan parte hartzeak erakundeetan suposatu dituen onuren inguruan galdetzen da inkestan.

%65,38k aipatzen dute **lan-baldintzen hobekuntzak**, %57,68k berrikuntza eta dibertsifikazioaren bidez **merkatuetan sartzea** eta **baliabideak lortzea**, %65,38k **diru-sarrerak**, %42,31k **komunitatean hobekuntzak**, eta %57,68k **ingurumen-praktiketan** aurrerapausoak. Orobat, %42,31k sentitzen dute **informazio gehiago** daukatela, %34,62k erraztasun handiagoarekin esportatu dezaketela, eta %30,77k irabazi handiagoekin.

Berdintasunari dagokionez, %53,85k adierazi dute erakundeak **aurrerapausoak** eman dituela arlo horretan, eta %61,59k emakumeen **ahalduntzea** sustatzen dela. Beraz, nolabaiteko **adostasuna** ikusten dugu BM ziurtagiriak berdintasunari egiten dizkion ekarpenen inguruan. Hala ere, nabarmentzekoa da %11,54k baieztatzen dutela arlo horretan **ez dela lorpenik egon**.

Horren harira, **ekintza kolektiboen gabezia dago emakumeek erakundeen** baitan gehiago parte hartzeko, eta **ahalbidetzen dituzten bitartekoak eta zerbitzuak dituztela bermatzeko**. Hori aukera eta parte-hartze berdintasun handiagoa egoteko helburuarekin, arlo publikoan, sozialean eta politikoan.

3. Grafikoa Mejoras que brinda el Comercio Justo a las organizaciones



Fuente: Elaboración propia conforme a la encuesta.

Nabarmentzekoa da gehienbat emakumeek erantzun dituztela inkestak eta ez dituztela solik irabazi ekonomikoak identifikatu BMko mugimenduan parte hartzeagatik, baizik eta baita produktuen **berrikuntza eta dibertsifikaziorako gaitasunen garapena bezalako kontuak** ere, eta horrek haien **ahalmenean eta arduran jauzia da**. Ondorio bera agertzen da elkarrizketetan ere. Guztien uste dute **bizi-baldintzak** hobetu direla.

«Familian hobekuntzak egon dira, senarrari dagokionez, seme-alabei, eskolara heltzen dira eta ikusi dutena kontatzen diete; senarrak jada konfiantza eman dio taldean lan egiteko (...) eta horrek autoestimua igotzen die, batzuk inoiz ez dira komunitatetik irten, eta gurekin daudenetik horrek asko motibatzen ditu eta jarraitu nahi



Zentzu berean, aitortzen dan BMk ahalbidetu egin duela **genero roletan aldaketak egotea familien baitan**. SRk argudiatzen du:



“«Bageneukan esperientzia aitak etxerako hornitzen duenean, batzuetan ez da nahiko seme-alaba guztientzat, batzuetan kultura dela eta, gunean semeak dira ikasi dezaketanak, haiek jarauntsi dezakete, horiek jasotzen dituzte lehenengo lurak, eta alabak senarrarekin edo haiek nahi dutenarekin joaten dira; eta emazteak babesgabe geratzen dira. Hala ere, emakumeek ardura dutenean, berdintasun handiagoa dago seme-alaben artean».

Finean, testigantzek argi uzten dute, ekonomikotik haratago, **BMk emakumeen ahalduntzean lagundu duela familiaren eta komunitatearen baitan**. Horrenbestez, funtsezkoa da bizitza publikoan zein pribatuan duen eragin positiboa kontuan izatea.

Ahaztu ezin den BMren beste ekarpenetako bat SR-ren erantzunetik ondorioztatu daiteke. Ziurtagiriarekin lortutako hobekuntzetako bat **kooperatiben iraunkortasuna bermatzea** dela dio. Aldaketa estrukturala da eta, emakumeen egoera ekonomikoa hobetzeaz gain, haien konfiantza eta egonkortasuna bermatzen du.

RS: «BM arauak betetzea zen, baina ikusi zuten familiak indartsuagoak egiten zituela eta antolakuntza-kontuak hobetzen zituela. Hasiera batean, araua betetzeagatik egin zen, baina lan egin duten kooperatibek, honetan inbertsioa egin dutenek, ikusi dute epe luzean iraunkorrak direla, serioagoak. Familiek ere aukeratzen dute egonkortasuna ikusten dutelako eta kooperatibak ohartu dira emakumeek konpromiso handiagoa dutela, leialtasuna handiagoa da; kooperatiba hauetan 2003an hasi ziren emakume taldeak sortzen».



6.Taula

Bidezko Merkataritzako ziurtagiriak erakundeetan eragindako aldaketak

Opción	Cuenta	Porcentaje
Tenemos más información (SQ001)	11	42.31%
Podemos exportar con más facilidad (SQ002)	9	34.62%
Podemos exportar con más beneficios (SQ003)	8	30.77%
Estamos mejor organizados/as (SQ004)	8	30.77%
Tenemos más capacidad para innovar (SQ005)	15	57.69%
Tenemos más capacidad para diversificar nuestros productos (SQ006)	15	57.69%
Otro	2	7.69%

ID	Respuesta
2	Mujeres empoderadas
23	somos más conscientes de la calidad de los insumos

Fuente: Elaboración propia de acuerdo a las entrevistas.

Komunitatean, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak daude?

Tabla No. 7

Dentro de su comunidad, ¿Existe desigualdad entre mujeres y hombres?

Opción	Cuenta	Porcentaje
Desigualdad salarial (SQ001)	10	43.48%
Ausencia en el reparto de responsabilidades familiares (SQ002)	10	43.48%
Violencia de género (SQ003)	10	43.48%
Acceso a los recursos (SQ004)	5	21.74%
Monolingüismo (SQ005)	2	8.70%
Cultura machista (SQ006)	13	56.52%
Participación en instituciones de la comunidad (SQ007)	2	8.70%
Acceso a la educación (SQ008)	2	8.70%
No (SQ009)	3	13.04%
Cada vez menos (SQ010)	7	30.43%
Otro	1	4.35%

Fuente: Elaboración propia de acuerdo a las entrevistas.

Erakundeak **komunitatean gertatzen denaren isla dira**; iruditeria kolektiboa, kultura eta mitoez azaltzen dute, batzuetan krudelki, desberdintasunak daude, ez soilik gizarte-mailakoak, baizik eta generoen artean ere.

Ikerketa honetan, gehienek azaldu dute inguruko **kultura matxista** dela gehienbat (%56,52); %43,48k onartzen dute **soldata-desberdintasuna**; eta ehuneko berdinak salatzen du etxeko lanetan gizonik ez dagoela eta **genero-indarkeriaren presentzia**. Izan ere, emakumeetako bi indarkeria horren biktima bezala aitortzen dute haien burua. Aldi berean, %13k ez dituzte desberdintasunak identifikatzen, eta aukera guztiak dira horrek **eredu patriarkal** nagusiaren normalizazioa suposatzen duela.

Elkarrizketetan nabaria da desberdintasunaren identifikazioa landagunean. Elementu hori garrantzitsua da BMrentzat, izan ere, landaguneetan kokatzen dira BMko erakunde gehienak.

B: "Punon ikusten dugu hirian guztiek ikasten dutela, mutilek eta neskek, baina landaguneetan, aldentutako tokietan, oraindik honakoa ikusten da: bera neska da, bigarren hezkuntza amaitzea eta, mutil-laguna baldin badu, badauka mantenduko duen norbait. Oraindik ere hori ikusten da (...).Eta neska gazte batzuk badaukate haien familia eta hor geratzen dira, eta mutilek ikasten jarraitzen dute, neskek ardura handiagoa dutelako, zaintza, bularra ematea (...). Eta landaguneetan irakasleak 8:30-9:00 inguru heltzen dira eta 12:30ean joaten dira, nolatan ikasiko dituzte gauza asko horrela. Pribatuetan, 7:30ean heltzen dira eta 13:00etan joaten dira, eta 14:00etan itzultzen dira eta ordu gehiago egiten dituzte, nola ikasiko dute berdin».

MP: «ED deitzen den programa daukagu, horren baitan neska haur eta gazteekin lan egiten dugu garrantzitsua delako zer pentsatzen duten jakitea. Izan ere, komunitateetan ohikoa da gazte ezkontzea edo bortxazko ezkontzak egotea, batzuetan familiak direla eta, horiek dira ditugun gaiak».





SR: «Nire komunitatean lehenengo neska izan nintzen ikasteko eta unibertsitateko gradua egiteko aukerarekin. Niretzat poztasuna eta tristezia da aldi berean, aukera hori izan ahal zuten neska guztietan pentsatzen dut... Lehen zaila zen gehiengoak esaten zidalako zertarako ikasi ezkonduko baziren».

Esan dezakegu periferiako **emakumeek zaitasun handiagoak dituztela baliabideak izateko**, genero desberdintasunak nabarmenagoak direlako. Baina erresistentzia espazioak ere aurkitu ditugu, adibidez, lehen aipatutako feminismo indigena. Izan ere, elkarrizketatutako bik desberdintasunak onartzen dituzte, baina landatasunaren ikuspegi ahaldundua aurkezten dute:

MP: «(Gure komunitatean) eskola feminista daukagu; zergatik feminista, bada, oraindik ere haietzat eta komunitateentzat zaila da azaltzea. Zer da hori, ezta? Baina gure eguneroko jarduna da, egiten duguna eta naturarekin zein ingurunearekin harremanetan egoteko modua da, gure baliabideak lortzeko modua autonomia lortzeko, hori zaila da haiek ulertzea. Haien formakuntza prozesuan laguntzen ari gara, feminismoa zer den ulertzeko. Batzuetan, telebistako iragarkietan ulertarazten da emakume eta gizonen aurka borrokatu nahi duten emakume-taldeak direla, eta horren inguruan hausnartu beharra dago. Emakume gisa lan egiteaz ari gara, nola egiten duzun emakume bezala, eta nola zihoazen eguneroko ekintzetatik haratago».

SR: «Komunitateetan lidergo handia dago, ahalduntze handiagoa dago, neska gehiago daude, emakume gehiago zenbait gaietan, kafean, baina asko falta zaigu, askoz gehiago».



Azkenik, elkarrizketatutako pertsona guztiek adierazi dute desberdintasunekin amaitzeko **neurriak ezartzen jarraitzeko** beharra. Batzuek aipatu dute benetako berdintasunerako beharra dagoela, eta onartzen dute berdintasun formalean aurrera egin dela: **«badaude neurriak eta marko juridiko normatiboak, baina errealitatean aplikatzea falta da eta emakume indigenen testuinguruetara bideratutako proposamenak».**

Beste erantzun batzuek desberdintasuna **egiturazko arazo gisa** aitortzea eskatzen dute, noizbehinkako aldaketetatik haratago doazen esku-hartzeak egiteko:

- *«Premiazkoa da desberdintasunekin amaitzea garapen jasangarria eta genero ekitatea garatzeko, emakume eta gazteei baldintza hobek eman behar zaizkie, soldata bidezkoa eta lantoki seguruak».*
- *«Ohitura matxistekin apurtzeko unea heldu da, pertsona guztiok aukera berdinak izan ditzagun ekonomia-, lanbide- eta hezkuntza-hazkunderako».*



Bidezko Merkataritzak komunitateko garapenari laguntzen dio?

BMk erakundeentzat **aparteko laguntza** den **ordainsaria** eskaintzen du. Produktuak kobratzeaz gain, kooperatibek kopuru gehigarria daukate erakundeen eta komunitateen ekonomia-, gizarte- eta komunitate-garapenean inbertitzeko.

Inkestetan, entitate gehienek (%61,54) adierazi dute funtsak **trebakuntzara** bideratzen direla; %50ek baieztatu dute genero **berdintasunean aurrerapausoak emateko** ekimenak finantzatzen dituztela; eta antzeko ehunekoak adierazi dute azpiegituran, **hezkuntzan eta osasunean hobekuntzak** egitera bideratzen dituztela.

Atal kualitatiboko erantzunak bereziki garrantzitsuak dira. Batzuk aurreko galdera batzuen baitan daude. Izan liteke inkestan aurrera egin ahala erakundeak BMri dagozkion elementu garrantzitsu gehiago identifikatu izana.

Orokorrean, adierazten dute ordainsariaren helburua lau taldetan banatu daitekeela:

- **Hobekuntza ekonomikoa**, erakundeak indartzeari eta aurrezki kuxak sortzeari egiten dio erreferentzia.
- **Erakundeen azpiegituren hobekuntza**, adibidez, bilketa-zentroa, fabrika eta antzerako proiektuak sortzea. Inbertsio horiek garrantzi handia daukate, izan ere, erakundea sendotzen dute eta ziurtagiriak mantentzea ahalbidetzen dute.



-
- **Komunitatean hobekuntza**, unibertsitate-bekak ordaintzeko funtsak, kirol- eta kultura-ekimenak, elikadura burujabetza proposamenak, ekintzailtza-kultura, beste erakundeekin aliantzak eta artisautzen lana ekoizpen-jarduera gisa aitortzea. Oso interesgarria da azkenengo erantzun hori, adierazlea **tradizioz emakumeek arlo pribatuan egin izan duten eta egiten jarraitzen duten hori lan gisa aitortzen delako.**
 - **Genero berdintasuna, emakumeak ahalduntzea**, emakume artisau indigenen ahalmenak garatzea eta indartzea; eskubide berdinak eta zuzendaritza berdinean parte hartzea sustatzeko sail berezia; beste ekoizleei laguntzea; gizon, emakume eta gazteentzat eskubideak, aukerak eta lan-baldintzak bermatzen dituen **Genero Politika** garatzea; **genero batzordea** eta erakundeko **genero koordinatzailearen** postua sortzea, genero politikaren eta laneko sexu jazarpenaren prebentziorako bidearen inplementazioa kontrolatzeko. Azken horiek, noski, erakunde handi batekoak dira.

Ikusi dezakegunez, neurri horiek guztiak ez daude zehatz-mehatz BMren ordainsariarekin lotuta, izan ere, batzuk soilik erakundearen baitan gertatzen dira. Hala ere, **inguruan ikusgarritasuna** ematen diote eta, beraz, eragina daukate inguruan.

Dena dela, ordainsariei esker berdintasun arloan aurrerapausoak daudela onartzen duten arren, elkarrizketatutako pertsona gehienek BMren berdintasun-irizpidetik haratago doazen eskaerak dituzte, **ekintza positiborako neurri bereziak** eskatzen dituzte. Azken finean, proposamen zehatzak **«lurreratzea»** eskatzen dute.



Zentzu horretan, SRek proposamen interesgarria egiten du:



“«Nire ustez, BM emakumeentzako hazi zen, guk hitz egin eta kontzientziatu dugulako gehien, gu gara gehien aldatu garenak; orduan, gu gara familian aldatu dezakegunak. Horrenbestez, BMren zati bat izan behar dugu emakumeok eta emakume-taldeak, baina eragina izan behar dugu. Horregatik, beti borrokatu dugu ordainsari bat beti emakume-taldeentzako izateko. Baina, gehiengoak erabakitzen zuenean, zertarako izango da, bada denentzako izaten zen eta azkenean ez zegoen ia ezer emakume-taldeentzako. Nik uste dut BMk ondorengoa esan beharko lukeela: “Ordainsariaren zati hau derrigorrez komunitateetako emakume-taldeentzat”. Nire ustez, horrek gehiago lagunduko liguke indarra hartzen eta emaitzak lortzen, berez eskolek baino gehiago. Ezin digute saia eman emakume-taldeekin lanean ari garelako diogulako soilik... eta txostenean emakumeak izatea haien aldaketez hitz egiten dutenak”.



8. Taula

BMko ordainsariaren bidez, zer eman dio zure erakundeak komunitateari?

Nada	2	7.69%
Mejora educativa y de salud	9	34.62%
Mejora de infraestructura	11	42.31%
Capacitaciones	16	61.54%
Avances por la igualdad de género	13	50.00%
Otro	0	0.00%

ID	Respuesta
14	Ingresos a cada familia
16	Calidad de vida en general
23	becas para temas culturales y deportivas
26	Brindamos apoyo educacional: cada año kits escolares a mas de 500 niños/as, becas universitarias a mas de 50 jovenes hijos e hijas de socios productores (as)
13	Centro de acopio
14	Adecuación galpones
26	Hemos construido nuestra propia fabrica de azucar y otros proyectos, vivero forestal, laboratorio de análisis de suelos, planta de fertilizante orgánico, salón de reuniones, etc.
9	Técnicos y productores
13	Soberanía Alimentaria, Orgánica
15	Conocimiento del saber para conocer el ciclo de producción del cacao
25	Empoderamiento de la mujer, fortalecimiento en financiamiento, cajas de ahorro
26	Realizamos periodicamente capacitaciones sobre diversos temas: normas de la produccion organica, criterios de comercio justo: equidad de genero, consumo responsable, liderazgo, importancia del cuidado y conservacion del medio ambiente y otros temas.
40	Emprendimiento
44	Desarrollo y potenciación de capacidades de las mujeres indigenas artesanas
9	Departamento especial para promover los derecho igualitarios
13	Ser parte de la directiva
14	Asociadas solo mujeres
15	alianzas con otras organizaciones, mejora financiero
23	Apoyan a otras mujeres productoras
26	Contamos con una Política de Genero que garantiza: derechos, oportunidades y condiciones laborales para hombres, mujeres y jovenes en la organizacion. Tambien contamos con un comite de genero y coordinadora de genero en la organizacion para monitorear la implementacion de la politica de genero y la ruta de prevencion de acoso sexual laboral.
39	Tenemos más trabajo con mejores sueldos
44	Reconocimiento del trabajo de la artesanía textil como una actividad productiva fortaleciendo la autonomia económica

Fuente: Elaboración propia de acuerdo a las entrevistas.

Zein tresna dituzte BMko erakundeek emakumeen parte-hartzea sustatzeko?



Berdintasunerantz aurrera egiteko, ezinbestekoak dira **taldeko erabaki parte hartzaileak errazteko mekanismoak** eta emakumeek zuzendaritza-postuak izatea sustatzen duten tresnak.

Ikerketaren emaitzen arabera, dena den, arlo horretan **oraindik ere asko dago egiteke**. Hala, %16k bakarrik onartzen dute **Berdintasun Plana edo Genero-Politiken** antzeko egiturazko neurriak daudela haien erakundeetan. Era berean, deigarria da %28k baieztatzen dutela haien erakundeetan **ez dagoela berdintasunerantz aurrera egiteko neurririk**, horrek BMko irizpideetako bat ez betetzea suposatuko lukeelako.

Un 52% indica que una herramienta para impulsar que las mujeres asuman cargos directivos es la **sensibilización a la población**. Esta propuesta trata no sólo de generar cambios dentro de la organización, sino también en el entorno, para que tenga un impacto mayor. Por otro lado, como anteriormente se ha mencionado, existe una clara ausencia de compatibilización de la vida familiar y laboral. Por ello, muchas de las propuestas mencionadas en las encuestas se refieren a medidas prácticas tales como establecer **“horarios de reuniones compatibles con la crianza de los hijos e hijas”**.

Erakundeak erabakiak hartzeko moduari dagokionez, %88k adierazten dute asanblada erabiltzen dela. Dena den, onartzen dute praktika demokratiko horrek **emakumeak ia guztiz kanpo utzi ditzakeela**, gizonen presentziaren aurrean hitz egiteko edo bestelako aukerak azaltzeko beldur direlako. Hori saihesteko, beharrezkoa da emakume lider gisa lehendik eraiki izatea. Izan ere, inkestan jasotako eskaeretako bat «emakumei zuzendutako lidergo-formakuntza» da.

Behar hori aldarrikatzen dugu, badirudielako gizonak naturalki lidergoa dutela izaeraren parte bezala, horretarako gaitasunak garatzen haratago. Emakumeak ekoizpen-bitartekoen jabe izan eta diru-sarrerak sortu arren, **haien balioa gutxitzen da**, iruditeria kolektiboa ideologia nagusiak pisu handia duelako, landa eremuko komunitateetan ezarritako eta errotutako genero rola daude.

Eta hori gertatzen da erakundeak mistoak izan edo ez. Ikerketa honetan zehar, trebakuntza-beharrak errepikatu izan dira proposamen gisa, baina, elkarrizketan SRK argudiatzen duenez:



“Nik ikusi dudanagatik, BM erabili izan da trebakuntzarako, baina falta izan da jarraipena egiteko eta proiektuak indartzeko; ordainsaria trebakuntzarako edo ekoizpen proiektuetarako erabiltzen delako, baina ez jarraipena egiteko... Horretarako instituzio edo fundazioen batekin egiten da ahalegina, baina normalean ez dago dirurik (...). Badaude eskolak, baina hor geratzen da, ez da jarraipenik egiten eta berez proiektua izatea zaila da”.

Testigantza horrek eskaria interesgarria da, emakumeak ez dituelako kokatzen trebakuntzaren objektu gisa, baizik eta **subjektu** moduan. Zentzu horretan, beharrezkoa da trebakuntzek **eragin eraldatzailea** izatea eta **autonomia** lortzeko bideratuta egotea. Trebakuntzek jarraipena izatea eta proiektu integralagoen baitan egotea irtenbide baliozkoa da, SRk argudiatzen duen bezala.

Aldi berean, hala eta guztiz ere, inkestan biltzen da emakume gehienek **haien buruan lider gisa** ikusten dutela. MPk haren erakundearen formakuntza-eskola feministaren esperientzia du eta haren inpaktua ikusi du parte hartu dutenengan:



“Asko ikasi dute eskolan eta jada haien burua lider gisa ikusten dute. Hasieran ez zen hala eta, nik galdetzen nienean, ezetz esaten zidaten, ez zekitelako gaiaren inguruan, ez zutelako ezagutzen. Orain, duela gutxi galdetu nienean, esan zidaten: “Orain bai, gure burua lider gisa ikusten dugu, hemen eskolan gaudelako. Jada gehiago dakigu, ausartak gara eta hau bezalako espazio bat edukitzeko eskubidea dugu”. Hasi zirenetik aldaketa txiki horiek ikusteak motibatzen nau».

Beste bi adibide berreskuratu ditugu. Ak dio: **«Erakundearen beti gaude emakumeak, eta guk eramaten dugu dena aurrera, erakundearen, komunan eta familian».**

Bere aldetik, Sk: **«Nire balioa ikusten dute eta horregatik ordaintzen didate, eta nik esan nien: Idazkaria izateko hautatuko banauzue, ordaindu behar didazue».**

Gain honen inguruan jasotako erantzunak aztertzean, batzuetan zalantza dago aipatzen dituzten tresnak jada dauden edo haien erakundearen aplikatu litezkeela uzte duten.

Tabla No. 9

Zein tresna daude zuen erakundeetan emakumeek zuzendaritzakarguak izatea sustatzeko?

Opción	Cuenta	Porcentaje
Sistema de cuotas o incentivos (SQ001)	2	8.00%
Sensibilización a la población sobre la igualdad entre los géneros (SQ002)	13	52.00%
Contamos con un plan de igualdad o políticas de género (SQ003)	4	16.00%
Formación en liderazgo dirigido a mujeres (SQ004)	10	40.00%
Horarios de reuniones compatibles con la crianza de los hijos e hijas (SQ005)	10	40.00%
Identificación del transporte público para la asistencia a las reuniones (SQ006)	4	16.00%
Políticas de recambio generacional en liderazgo de mujeres (SQ007)	8	32.00%
No existen (SQ008)	6	24.00%
Otro	1	4.00%

Fuente: Elaboración propia de acuerdo a las entrevistas.

Zein proposamen egiten dizkiezue ziurtatzaileei BMren inpaktua handitzeko eta hobetzeko?

Erantzunak oso anitzak eta interesgarriak dira, eta ondorengo taldeetan banatu daitezke:

- **Accion-Ekintza ekonomikoak:** merkatu gehiago bilatzea, esportazioak handitzea, prezioak kontrolatzea, inbertsioak eta makineria erostea bultzatzea.
- **Ziurtatzaileari dagokionez: laguntza teknikoa,** azkartasun handiago ziurtagiri-prozesuetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia erabiltzeko eta teknologia zein berrikuntzaren aurrerapenean aholkularitza.
- **Sentsibilizazio ekintzak:** BMren onurei dagokienez, eta batez ere ekonomikoak ez direnak, gizarte-ekintzailetza kultura sortzea.
- **Generoen arteko berdintasunari** dagokionez: emakumeentzako trebakuntza espezifikoak, zuzendaritza postuetan emakumeek parte hartzea sustatzea, emakume gehiagok parte hartzea, emakumeen etxeko lanak kontuan izatea, informazioa hobetzea eta emakume zaurgarrienei egokitzea, eta erakundeek egiten duten lana ikusaraztea.

Azken puntuari dagokionez, elkarrizketak ere konstruktiboak dira:

B: «Neskei bideratutako trebakuntza gehiago izan beharko genuke, hori txikitatik egin behar delako, berdin irakatsi neska eta mutilei (...).»

SR: «Kooperatibetan berdintasunaren eta maskulinitateen inguruan gai asko daude lantzeke, hainbeste dira, ezen oraindik ere... eta arlo guztietan... ez dira lantzen, ez da horretaz hitz egiten... Eta gai horiek lidergoa hartzeko balio digute eta emakumeak eta taldeak ahalduz. Hori egitean, guztia hobetzen da: komunitateak, estatua...Argi dago, trebakuntzarekin dena eraldatzen da».

A: «Proiektu gehiago, trebakuntza gehiago, aurrera ateratzeko eta erakundeen funtzioetan lan egin ahal izateko».

Proposamen guztiek iradokitzen dute ziurtatzailearentzako lan-plan erreala. Gainera, ikusten dugu askok aipatzen dutela arlo pribatua. Horrek bat egiten du lanaren hasieran aurkeztutako argudio teorikoarekin: merkatuetan jarrera antikapitalista izateak bizitza mantentzeko prozesuak kontuan izatea suposatzen du, adibidez, zaintza lanak..

Nola laguntzen die BMk soldatapeko langileei?

Erakundeen ekoizpen-jarduerak kooperatibistek beraiek egiten dituzte. Soldatapeko eskulana urria da eta, orokorrean, aldi baterako. Adibidez, Mexikoko kafe-ekoizpenak eskulan intentsiboa behar du eta tradizioz Guatemalatik zetozen jorneroek egiten zuten. Baina, gaur egun, kolektibo horrek Tijuana eta Cancun bezalako hirietara eta Estatu Batuetara immigratzea aukeratzen du.

Nolanahi ere, interesgarria da BMren printzipioek erakundeen baitan izan dute irismena aztertzea, haien jarreran, filosofian eta giza-, lan- eta ingurumen-harremanetan. Horregatik, entitateek hartzen dituzten neurrien inguruko galderak egin ziren, hala nola eguneroko praktika, langileekin, eta kontratatutako langileak dituzten.

BM ziurtagiria izatetik soldatapeko langileekin harremana zein neurritan aldatu den galdetzean, erantzun kualitatiboen emaitza azpimarratzekoa da: **kontzientzia sozial handiagoa, taldearen parte izatearen sentimendua garatzea, langileek onura guztiak dituztela eta biziera osasuntsuagoa daukatela orain**. Horretaz gain, gehiengoak **soldaten eta bizigarritasun baldintzak hobetzea** aipatzen dute.

Nabarmena da ez dutela adierazten herrialdean indarrean dauden lan-legeak betetzea, ezta lizentziak edo gizarte-onura zehatzak. Horren arrazoia da, askotan, **estatuak eta erakundeak beraiek ez dituztela gizarte zerbitzuak**, hala nola, gizarte eta erretiro segurantzak, aurrezki planak, osasun zerbitzuak, haur eskolak edo aurrezki eta kontsumo kooperatibak, besteak beste.



5. Ondorioak



- UBMko erakundeetan berdintasun handiagoa egoteak entitateen baitako **emakumeen baldintzak hobetzen** laguntzen du, eta gero arlo pribatura eraman ditzaketen **konpetentziak** hartzen.
- Hala ere, hori lehengo urratsa baino ez da: beharrezkoa da ingurua eraldatuko duen bilakaera bultzatzea, gizarte-mugimendu emantzipatzailea sustatzeko eta kontzientzia zein **ohitura matxistetan aldaketak** sortzeko. **Ezin da berdintasunean benetan aurrera egin ez badago inpakturik komunitatean.**

- Baldintza bat betetzea ez da nahikoa. BM feminismoaren marko teorikotik abiatu behar da **generoen arteko berdintasunaren kontzeptua birdefinitzeko** eta berdintasun eraldatzailerantz aurrera egiteko, **gizarte-lidergo inklusiboa eta gizarte-berrikuntza** kontzeptuak barne hartuta.
- Gainera, berdintasunaren kontzeptuak **publiko/pribatua dikotomia** kontuan izan behar du eta klaseari, landa guneari eta, noski, indigenismoari lotutako **interseksionalitatea** aitortu.



- Kontua ez da emakumeak zerrenda edo zuzendaritza-batzordearen parte izatea, baizik eta benetan **haien behar espezifikoak errepresentatzea** eta haien errealitateak balioan jartzea eta kontuan izatea, erakundearen zein komunitatean.
- Horretarako, ezinbestekoa da erakundearen prozesu guztiak barne hartzen dituzten genero **politika transbertsaletan** aurrera egitea, **ekoizpenetik salmentara, ziurtagiritik, ebaluaziotik eta ordainsariaren helmugatik igarota.**
- Ikuspuntu transbertsal horrek **«behetik gorako» ikuspegia** izan behar du. Horrela emakumeen abiapuntuak kontuan eduki ahal izango dira, ezarriko diren neurriak definitzean edo ebaluatzean ikuspuntu eurozentrikoak eta estandar irrealak saihestuz.



Horri dagokionez, ez dugu ahaztu behar, kasu batzuetan, analisisan ikusi dugun bezala, desberdintasun maila oso oinarrizkoetan gaudela, eta parte hartzeko **beldurra edo senarren kontrola** bezalako elementuak aurki ditzakegu.

Testuinguru horretan, berdintasun planak edo sektorekako batzordeak bezalako egiturazko neurriak ezartzeak berehalako beharretatik eta emakumeen ikuspuntutik aldendu gaitzakete.



- Beraz, aipatu ditugun berdintasun-politikak bezalako egiturazko neurriak alde batera utzita, funtsezkoa da erakundeen baitan bestelako **ekintza zuzeneko** esku-hartzeak sustatzea, seme-alabak zaintzeko ordutegiak bateragarriak izateko tresna, adibidez, eta baita **diskriminazio positiboa** ere, hala nola kuoten sistema.
-
- eharrezkoa da **etxeko erabakiak hartzeko emakumeen rola, publikoan hitz egiteko gaitasunak eta lidergoa izateko ahalmena** indartzea. Horrek guztiak eragina izango du **emakumeek aurkitzen dituzten oztopoetan; genero indarkeria, matxismoa, senarrek emazteekiko duten kontrola, familia bizitza, lanekoa eta pertsonala uztartzeko bateragarritasun falta, eta ekonomia-, gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta osasun-baliabideetara heltzeko zailtasuna.**

Para ello las capacitaciones deben tener un **efecto transformador** y deben ir dirigidas a lograr **la autonomía**. Además, es fundamental que las capacitaciones **tengan seguimiento** y se acompañen de proyectos más integrales.



Bibliografía

Escobar, A. (1998). *La invención del Tercer Mundo: construcción y deconstrucción del desarrollo*. Norma.

Belon, G., & Chapelle, L. (2021). FAIR TRADE USA. *Gender Equity and Women's Empowerment*. <https://shorturl.at/bmptx>

González Medina, J. P. (2023). *Comercio justo en el desarrollo de la economía campesina de los comerciantes del mercado municipal de Guanujo, Guaranda*. Universidad Estatal de Bolívar, Ecuador, 2022. <https://dspace.ueb.edu.ec/handle/123456789/5721>

Organización Mundial del Comercio Justo, Latinoamérica WFTO-LA. (2023). ¿Qué es el Comercio Justo? y principios <https://www.wfto-la.org/comerciojusto/>

Johanisova, N y Vinkelhoferová, M (2019). Economía social y solidaria. En Kothari, Salleh y Escobar (Coord./ Ed./Eds.). *Pluriverso: Un diccionario del posdesarrollo*. (pp. 270-273). Icaria.

Ripess. (2023). *Sobre RIPESS: Red intercontinental de promoción de la economía social solidaria*. <https://www.ripess.org/concepts-associes/?lang=es>

Piedra Vindrola, S. E. M. de la. (2023). *Análisis del impacto del fair trade en las empresas y consumidores: Evidencia empírica en una economía emergente* (p. 1) [Universidad Pablo de Olavide]. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=322051>

CLAC-FAIRTRADE. (2023, octubre 26). Proyecto Bellas: Una iniciativa que empodera a las mujeres en la producción bananera colombiana - <https://clac-comerciojusto.org/proyecto-bellas-una-iniciativa-que-empodera-a-las-mujeres-en-la-produccion-bananera-colombiana/>

Bibliografía

Café Femenino (2023). *Café Femenino, Our story*.
<https://www.cafefemenino.com/story>

Carrasco, Cristina, Ed (2003). *Mujeres y economía. Nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*, Icaria, Barcelona.

Comas d'Argemir, D (1995). *Trabajo, género, cultura. La construcción de desigualdades entre hombres y mujeres*. Icaria.

Coria, C (2003). *Las negociaciones nuestras de cada día*. Paidós.

Hernández Castillo, Rosalba Aida (2008). "Feminismos Poscoloniales: Reflexiones desde el Sur del Río Bravo" en: Suárez Návaz, Liliana y Hernández, Rosalva Aída (eds.) *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*. Ediciones Cátedra, Universitat de Valencia, Instituto de la Mujer, Madrid.

Maquieira, Virginia (2001). "Género, diferencia y desigualdad", en *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*, coordinado por Elena Beltrán y Virginia Maquieira, Alianza Editorial, Madrid.

Palmer, Ingrid (1991). *Gender and Population in the Adjustment of African Economies: Planning for Change*, ILO, Ginebra.

Quesada, M. E. (2012). La perspectiva de género en el comercio justo: una reflexión económico-antropológica. *Revista Pueblos Y Fronteras Digital*, 7(14), 81-116.
<https://doi.org/10.22201/cimsur.18704115e.2012.14.100>

Scott, Joan (1990). «Gender: An Useful Category of Historical Analysis», *The American Historical Review*, 91 (5), 1986, traducción española: "El género: una categoría útil para el análisis histórico", en *Historia y género. Las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, editado por Amelang, J. y M. Nash, Alfons el Magnanim, Valencia.

Spivak, G (2010). *Crítica de la razón poscolonial hacia una historia del presente evanescente*. Akal

BIDEZKO MERKATARITZA

ETA GENERO BERDINTASUNA

Ekueadorren
Perun eta Mexikon
egindako
kasu-ikerketa

